

EKB etorkizunari begira

JOAN den larunbatean burutu berria du EKBk bere bigarren Batzarre nazionala. 1983ko martxoaren 12an egin zuen EKBk bere buruaren aurkezpena Bergaran, UNEDeko aretoan. Beraz, bost urte juxtu.

Aurkezpen hartan zabaldu zuen EKBk bere lehen oinarritzko dokumentua; bertan finkatu zituen Batzarrearen abiaburu nagusiak, euskararen eta euskal kulturaren egoera eta dinamikaren analisi oso kezka handikoa egin zuen, Euskararen normalkuntza ipini zuen Batzarrearen helburutzat eta horren esannahia azaldu zuen; azkenik dei zabal bat egin zuen herritar guztion hizkuntza nazionalarekiko erantzunkizuna gogoratzu eta euskararen normalkuntzarako talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinaziorako dei eginez. EKBren hasierako manifestua izan zen hura.

Bost urtetik gora igaro dira ordutik. Tarte honetan bere batzarre nazional bat egina du EKBk, 1984ko uztailan (Eibarren lehen saioa, eta Iruñean bigarrena). Handik atera zen aurrenik EKBren II. manifestua, non EKBren abiaburu nagusiak zehaztu eta sakondu bait ziren eta Batzarrearen beraren helburuak argitu.

Geroago, eta Eibarko batzarrearen ondorioz, EKBk bere oinarritzko dossiera atera zuen, *Jakin* aldizkariaren zerbaki monografiko gisa, *Euskararen plangintzarako oinarriak* izenekoa.

Agiri, dossier eta bestelako idazkien bidez joan da EKB bere jarrera eta bere iharduera azaltzen euskararen normalkuntzarako bidean.

Aurten egin du bere bigarren batzarre nazionala; horren lehen partea martxoaren 5ean Donostiako Zorroagan. Bigarrena uztailaren 23an Iruñean, UEUren hamabostaldiaren barruan. Tartean *Bateginik* kanpaina egon da.

Lehen saioan *Hizkuntz Politika* izeneko txostena eztabaidatu zuen. Hango oharra eta gerokoak jaso ondoren ponentzia zabalagoa landu du azken

bost hilabeteko epe honetan. Iruñeako batzarrean egindako ekarpenekin osotuz eta zuzenduz, EKBren oinarritzko dokumentua izango da ponentzia hori datozen urteetarako. Bertan euskararen azken urteotako ordezkapen-berreskurapen prozesua azaltzen da, Euskararen normalkuntzaren plangintzarako EKBren oinarri teoriko praktikokoak zehazten dira eta epe motz eta ertainerako EKBren ihardunbiderako ildoak markatzen dira.

BOST urteotan EKBk heldutasunerako bidea egin du: heldutasun teoriko, praktikoa eta organizatiborako bidea. Zalantzarik gabe, ez da talde edo batzorderen baten ibilbide elitista, ez eta elkarte eta erakunde herritarrena bakarrik ere. Euskal herritar askok egin du azken urteotan heldutasunerako bide hori, euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren alorrean.

Hiru izan dira hasieratik EKBren ildo nagusiak eta goiburua eragileak:

1.— Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra.

2.— Herri-dinamikaren funtsezkotasuna, plangintzaren oinarri eta eten-gabea erreferentzia gisa

3.— Euskalgintzako eta euskal kulturgintzako talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinazioa, herritarren plangintzako partaidetza bideratzeko eta antolatzeko.

Hiru ildo horietatik ihardun da eten-gabe. Bi arazo nagusiren barruan ibili behar izan du EKBk, bere jokabidea markatzen:

1.— Euskal Herriko indar eta sektore sozial, ideologiko, politiko eta kulturalen baterakuntza, euskararen berreskurapen osoari begira.

Bateginik kanpaina izan da, hain zuzen ere, baterakuntza asmo eta arazo horren probaleku nabarmena. Bertan agerian gelditu dira, hitz eta asmo onekin eta esperientzia baliozko eta txalagarriekin batera, kontradikzioak batetik, eta gerorako ahalbide irekiak, bestetik. Bidea urratzeko dago, euskaldun guztiok bildu eta bateratu arte,

guztiona eta guztiontzat dugun euskararen berreskurapen osoaren helburuaren eta proiektuaren inguruan.

2.— Bigarren arazo larria —eta buruhauste handia— honako hau da: erakunde publikoen eta erakunde herritarren harremanarena, euskararen normalkuntzarako plangintzari begira. Azken urteotan sarriegi konfrontazioa nagusitu izan da, halaberretz edota inertzia hutsez.

ALDE bietatik beharrezkoa dugula uste dut autokritika. Euskal herriko erakunde publikoek —eskualde, herrialde eta maila guztietakoei— bi gauza eskatu beharrean gara:

a) Euskara hizkuntza nazionalaren berreskurapen osorako borondate finkoa, proiektu garbia eta politika zuzena agertzea, plangintza orokorraren markoan.

b) Beren arteko koordinazio zabal eta jokabide bateratua bideratzea, plangintza horri begira, oraingo egoeran beharrezkoak diren akordioak burutuz.

Urrats horiek emanez, jokabide politiko eta instituzional garbiak eta irekiak markatu eta nagusituko diren neurrian, EKB, erakunde herritarren koordinakunderako plataforma denez, irekita dago eta beharrezkotzat dauka erakunde publikoen eta erakunde herritarren arteko elkarriketa eta lankidetzat zabaltzeko eta eratzeko, harreman dialektikoaren harian.

EKBk bere aldetik ondoko urteetarako desafiotzat hartzen ditu asmo eta arazo guzti horiek. EKBren proiektuak ikuspegi luzea eta dimentsio zabalak du: Euskara hizkuntza nazionalaren berreskurapen osoa, euskal kulturaren *berbizkundearen* barruan, Euskal Herriaren *berreraikuntzaren* bideetik.

PAULO
AGIRREBALTZATEGI